1990eko Euskal kultur ondareari buruzko Legeak aztarnategi arkeologikoak babestu zituen, eta gainera arriskuan zegoen ondare-interesa izan zezakeen guztia induskatzeko eta dokumentatzeko aukera bermatu zuen. Horri esker, Arkeologia profesionalaren diskurtso berria normalizatu ahal izan zen.

La Ley de Patrimonio cultural Vasco, 1990, protegió los yacimientos arqueológicos y abrió la posibilidad de excavar y documentar todo aquello que estando en peligro, pudiera tener un interés patrimonial. Gracias a ello se pudo normalizar el nuevo discurso de la Arqueología profesional.

## EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ARKEOLOGIA ARLOA

## EL ÁREA DE ARQUEOLOGÍA DE LA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO

1990. urtean, Euskal Herriko Unibertsitateko Arabako campusean, Geografia, Historiaurrea eta Arkeologia Departamentua sortu zen. Era horretan, Arkeologia arloak bere identitatea eskuratu zuen. Azpimarragarria da Euskal Herriko Unibertsitateko Letren Fakultatean eta 1991tik 1992ra bitartean, Arte eta Arkeologia Ondarearen masterrean Arkeologia Arloak egindako lana; Ana de Begoña Azcárraga izan zen zuzendaria eta Mertxe Urteaga koordinatzailea.

En el año 1990 se creó el Departamento de Geografía, Prehistoria y Arqueología, en el campus de Álava en la Universidad del País Vasco. Así, el área de Arqueología pasó a tener su propia identidad. Es de resaltar el papel del Área de Arqueología en el máster de Patrimonio Artístico y Arqueológico, impartido entre 1991 y 1992 en la Facultad de Letras de la Universidad del País Vasco; Ana de Begoña Azcárraga fue la directora del mismo y Mertxe Urteaga la coordinadora.

# FINKATZEA

# LA CONSOLIDACIÓN

4

*90eko hamarkadan Gipuzkoan arkeologiaren mugimendu berritzailea egonkortu eta finkatu zen. Horrela ekimen-gaitasuna frogatzen ari zen emakume talde baten etengabeko lanak izugarri lagundu zuen ordura arte behar bezala aztertu ez ziren diziplina arkeologiko batzuk egonkortzea.*

*La década de los 90 fue la época de afirmación del movimiento renovador de la Arqueología en Gipuzkoa. La perseverancia de un grupo de mujeres que venían demostrando su capacidad de iniciativa, contribuyó a consolidar diferentes disciplinas arqueológicas, que hasta entonces no habían sido suficientemente estudiadas.*

---

## Hiri-arkeologia / Arqueología Urbana

Hirietako zorupean lan egitea du ezaugarri.

Se caracteriza por trabajar en el subsuelo de las ciudades.

Hirietako gune arkeologikoak babesteak, eta jarduketa profesionalizatuek aukera eman zuten 1990etik aurrera Donostiako, Hondarribiko, Arrasateko, Azpeitiko, Errenteriako, Elgoibarko Erdi Aroko gotorlekuak ezagutzeko.

Jarduera horiek gehienbat emakume arkeologoek zuzendu zituzten.

La protección de las zonas arqueológicas urbanas y las actuaciones profesionalizadas permitieron, a partir de 1990, reconocer las fortificaciones medievales de Donostia, Hondarribia, Arrasate-Mondragón, Azpeitia, Errenteria, Elgoibar...

Estas actuaciones fueron mayoritariamente dirigidas por mujeres arqueólogas.



Donostiako harresiaren planoa, XVIII. mendea
Plano de la fortificación de Donostia, s. XVIII



Arrasateko Erdi Aroko harresiko dorrea, 1990. Mertxe Urteaga, Arkeolan
Torre en la muralla medieval de Arrasate-Mondragón, 1990. Mertxe Urteaga, Arkeolan



Arkeologia-indusketak Donostiako Bretxako merkatu-atarian, Miren Ayerbe, 1993
Excavaciones arqueológicas en la antepuerta del mercado de La Bretxa, Donostia-San Sebastián, Miren Ayerbe, 1993



Arkeologia-indusketak Bretxako merkatuko atzealdean, Marian Gereñu eta Mertxe Urteaga, Arkeolan, 1998
Excavaciones arqueológicas en la trasera del mercado de La Bretxa, Marian Gereñu y Mertxe Urteaga, Arkeolan 1998



Erreginaren Baluarteko berreskuratze arkeologikoa (Hondarribia). Miren Ayerbe eta Pia Alkain, 2003
Recuperación arqueológica del Baluarte de la Reina (Hondarribia). Miren Ayerbe y Pia Alkain, 2003



Esku-hartze arkeologikoa Donostiako Alderdi Ederreko lorategietan, Miren Ayerbe, 1996
Intervención arqueológica en los jardines de Alderdi Eder, Donostia-San Sebastián, Miren Ayerbe, 1996

## Arkeometalurgia / Arqueometalurgia

1982an egindako proiektu batean oinarritu zen, haren izenburua: *Iberiar penintsulako arkeometalurgia.* Historiaurreko metalurgia aztertzen du.

Se basó en el proyecto realizado el año 1982 titulado: *Arqueometalurgia de la península ibérica,* dedicado al estudio de la metalurgia en la Prehistoria.

Handik gutxira Gipuzkoara ekarri zuten Mertxe Urteagaren eskutik, eta lurraldeko meatzaritza eta metalurgia aztertzeko aplikatu zen. Lehen emaitzak ikertzaile horrek 1987an aurkeztutako doktore-tesian jaso ziren.

Ekarpen nagusiaren ardatzak hauek dira: erromatar meatzaritza, burdinola hidraulikoak eta burdinezko zepadiak.

Al poco se trasladó a Gipuzkoa de la mano de Mertxe Urteaga, y se aplicó en el estudio de la minería y la metalurgia del territorio. Los primeros resultados se recogieron en la tesis doctoral de esta investigadora presentada en el año 1987.

Las principales aportaciones se centran en la minería romana, las ferrerías hidráulicas y los escoriales de hierro.



Mertxe Urteaga Huelvako Rio Tintoko meatzeherri erromatarraren aztarnak bisitatzen, 1986

Mertxe Urteaga visitando los restos del poblado minero romano de Rio Tinto, Huelva, 1986



Las Médulaseko meategietan (Leon), 1987

En las minas de Las Médulas (León), 1987



Os Teixois-eko multzo hidraulikoko errementerian, Taramundin (Asturias), 1987

En la herrería del complejo hidráulico de Os Teixois, Taramundi (Asturias), 1987



Irungo Belbio meatze erromatarraren irteeran, 1988

A la salida de la mina romana de Belbio en Irun, 1988



Indusketa arkeologikoak Irungo Ola burdinolan, Arkeolan, 1998. Arantza Carretero, Elena Zangitu eta Mónica Casas

Excavaciones arqueológicas en la ferrería Ola de Irun, Arkeolan, 1998. Arantza Carretero, Elena Zangitu y Mónica Casas





Salbamendu-indusketa Yurre (Olaberria) ferrerian, Arkeolan 1999. Irudietan Elena Zangitu eta Lorea Amondarain

Excavación de salvamento en la ferrería de Yurre, Olaberria, Arkeolan 1999. En las imágenes Elena Zangitu y Lorea Amondarain

## Artzaintza-edo mendi-Arkeologia / Arqueología del Pastoralismo o de Montaña

Mendi inguruetan egiten diren jardueren aztarnak aztertzen ditu.

Trata los restos derivados de las actividades propias del entorno de la montaña.

Gipuzkoa aintzindaria izan da modalitate hori garatzen. 1988ko udan hasi zen Urbian, Mertxe Urteagak zuzendutako laginketaprospekzioetan. Helburua izan zen Bitoriano Gandiag frantziskotarrak antzemandako ebidentziak aztertzea. Emaitzak ikusita, urtero kanpainak planifikatu ziren 2001era arte. Urte horretan, Gandiaga hil zen.

Urte haietan, Historiaurretik artzaintzarekin zerikusia zuten dozenaka aztarnategi aztertu ziren.

Gipuzkoa ha sido pionera en el desarrollo de esta modalidad. Se inició en el verano de 1988 en Urbia, en las prospecciones con cata dirigidas por Mertxe Urteaga.
Su objetivo fue reconocer evidencias detectadas por el franciscano Bitoriano Gandiaga. A la vista de los resultados, se planificaron nuevas campañas anuales repetidas hasta 2001, año del fallecimiento de Gandiaga.

En esos años se reconocieron decenas de yacimientos vinculados al pastoreo desde la Prehistoria.



Bitoriano Gandiaga Urbiako txabola arkeologiko baten ondoan, 1989
Bitoriano Gandiaga junto a una chabola arqueológica de Urbia, 1989



Bitoriano Gandiagak, Mertxe Urteagak eta Txomin Ugaldek osatutako taldea Urbian, 1992
El equipo formado por Bitoriano Gandiaga, Mertxe Urteaga y Txomin Ugalde en Urbia, 1992



Zabalaizpeko egitura zirkularreko zundaketak, Urbia, 1988. Irudian: Miren Ayerbe, Begoña Bilbao, María del Mar López eta Miren Azurmendi, Álvaro Etxebarria eta Iñaki Kortarekin batera
Sondeos en la estructura circular de Zabalaizpe, Urbia, 1988. En la imagen: Miren Ayerbe, Begoña Bilbao, María del Mar López y Miren Azurmendi junto a Álvaro Etxebarria e Iñaki Korta



Mertxe Urteaga, Akelako inguruan (Urbia, 1991) urak ekartzeko zangek suntsitutako hondakinak aztertzen
Mertxe Urteaga examinando los restos destruidos por las zanjas de traida de aguas en Akela, Urbia, 1991



Mertxe Urteaga, Akelako (Urbia, 1992) hilobitumuluan egindako aurkikuntzak erregistratzen
Mertxe Urteaga registrando los hallazgos realizados en el túmulo funerario de Akela, Urbia, 1992



Arkeolan Taldea Zoitokietan, Urbia, 1993. Irudian, Marian Gereñu, Mertxe Urkiola, Begoña Bilbao eta Josean Etura
El equipo de Arkeolan en Zoitokieta, Urbia, 1993. En la imagen, Marian Gereñu, Mertxe Urkiola, Begoña Bilbao junto a Josean Etura

## Urpeko Arkeologia / Arqueología Subacuática

Urpean kontserbatu den ondare arkeologikoa aztertzen du.

Estudia el patrimonio arqueológico conservado bajo el agua.

1990ean, Getarian, Iturritxikiko aztarnategian lanean hasi ziren, eta hori erabakigarria izan zen diziplinaren garapen zientifikorako.

Urtero egin ziren kanpainak, Ana Benitok zuzenduta, eta hamar urtez luzatu ziren, 2000. urtera arte.

Berreskuratutako bildumak aztertzen jarraitu dute; eta 2022an, ikerketen monografia aurkeztu zen.

El inicio en 1990 de los trabajos en el yacimiento de Iturritxiki en Getaria, influyeron decisivamente en el desarrollo científico de la disciplina.

Las campañas anuales, dirigidas por Ana Benito, se prolongaron durante una década, hasta el año 2000.

Se ha continuado estudiando las colecciones recuperadas, y en 2022 se presentó la monografía de las investigaciones.



Aingura litikoa / Ancla litica









Ana Benitoren urpekari taldea ur azpian Iturritxikin
El equipo de buceadores de Ana Benito bajo el mar en Iturritxiki



Ana Benito Itxurritxikiko materiala aztertzen
Ana Benito analizando material de Iturritxiki



Ana Benito, Xabi Zeberio, Julio Villar
Iturritxikiko liburuaren aurkezpenean. Getaria
Presentación del libro de Iturritxiki. Getaria



Ana Benito Aranzadin / Ana Benito en Aranzadi



## MIREN AYERBE

*Hiri-arkeologiako heziketa ikastaroa gazteentzat* deituriko ikastaroan parte hartu zuen, eta, horri esker, Aranzadi Zientzi Elkarteko Arkeologia sailaren profesionalizazio-prozesuaren buru izan zen 90eko hamarkadan. Hirigune historikoetan egin zituen ikerketei esker, Hondarribiko Udalak kontratatu zuen, eta bertan jarraitzen du Kultur Ondarea kudeatzeko arduradun-lanetan.

Su participación en el *Curso de Formación de Jóvenes en Arqueología Urbana,* le permitió liderar en los años 90 el proceso de profesionalización de la sección de Arqueología de la Sociedad de Ciencias Aranzadi. Gracias a sus investigaciones en cascos históricos, fue contratada por el Ayuntamiento de Hondarribia, donde sigue ejerciendo su labor como responsable de la gestión del Patrimonio Cultural.



## ARANTZA UGARTE / ANA ECHEVARRÍA

Arkeologo profesionalen lehen belaunaldikoak izan ziren, baina, ziur aski lanbidearen zailtasunagatik, beste profesio batzuk aukeratu zituzten.

Formaron parte también de la primera generación de arqueólogas profesionales, aunque seguramente por la dificultad del oficio, optaron por otros caminos laborales.



## ELOISA URIBARRI

Prebentziozko arkeologia-lanak egin zituen, hala nola Sasiolako harrobiak suntsitu zuen Praileaitz II haitzuloko indusketak. Eloisa Uribarrik berezikiikerketa arkeologian zentratu zuen bere ibilbide arkeologikoa, hala nola Oñatiko Iritegi haitzuloarekin, Brontze Aroko eta Goi Erdi Aroko okupazioak izateagatik nabarmentzen den aztarnategia. Azken urteotan, Burdin Aroko ikerketa-proiektuetan parte hartu du, hala nola Basagaingo (Anoeta) herrixka gotortuan, baita Paleolitikoan ere, non Debako Praileaitz I haitzuloan egindako lanak nabarmentzen diren.

Realizó trabajos de Arqueología preventiva, como las excavaciones de la cueva de Praileaitz II, que fue destruida por la cantera de Sasiola. Eloisa se centró principalmente en la Arqueología de investigación como por ejemplo en la cueva de Iritegi, en Oñati, un yacimiento que destaca por contar con ocupaciones de la Edad del Bronce y de la alta Edad Media. En las últimas décadas codirige proyectos de investigación de la Edad del Hierro, como el del poblado fortificado de Basagain (Anoeta), y también del Paleolítico, donde sobresalen sus trabajos en la cueva de Praileaitz I (Deba).



## MARÍA DEL MAR LÓPEZ COLOM

1985ean, lehenengo talde profesionaleko kidea izan zen. Talde hori Aranzadik eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sinatutako hitzarmenari esker sortu zen. 1987an, *Hiri-arkeologiako heziketa ikastaroa* gazteentzat ikastaroko zuzendaritza-taldean sartu zen. Eta 1989az geroztik, Arkeolan Fundazioan egin du lan.

Formó parte en 1985 del primer equipo profesional que nació a partir del convenio rmado entre Aranzadi y la Diputación Foral de Gipuzkoa. En 1987 se incorporó al equipo directivo del *Curso de Formación de Jóvenes en Arqueología Urbana*, y desde 1989 ha desarrollado su trabajo en la Fundación Arkeolan.

---



## MARIAN GEREÑU

Dokumentalista gisa trebatu zen *Hiri-arkeologiako heziketa ikastaroa gazteentzat* ikastaroan. Prestakuntza horri esker, ibilbide propioa egin zuen jarduera arkeologikoan, ondo menderatzen baitzituen iturri idatzien tratamendua eta artxiboetako lana. Erdi Aroaren ondorengo garaiak (XVI. mendetik aurrera) ikertu ditu batez ere.

Se formó como documentalista en el *Curso de Formación de Jóvenes en Arqueología Urbana;* esta preparación le permitió desarrollar un itinerario propio en la práctica arqueológica, gracias a su dominio del tratamiento de las fuentes escritas y del trabajo en los archivos. Sus investigaciones se han centrado sobre todo en el período postmedieval, a partir del siglo XVI.

---





1992. Oiassoko erromatar portua (Irun) / Puerto romano de Oiasso (Irun)

↑ Elena Zangitu

↓ Marian Gereñu, Mertxe Urteaga, Elena Zangitu

### Oiassoko erromatar portua, Irun

### El puerto romano de Oiasso, Irun

Hiri-arkeologiako lan garrantzitsuenetako bati esker deskubritu zen 1992an Irungo Oiassoko portu erromatarra. Garai horretan, Europan arkeologikoki onartutako portu erromatar bakarretakoa izan zen. Portua lokatzak estalita zegoen, eta, horrek babestu egiten zuenez, aztarnak oso ondo kontserbatutak zeuden. Halako baldintza onetan egonda, aparteko objektuak berreskuratu ziren, eta horrela hasi ziren Oiasso museoko bildumak.

Una de las operaciones de Arqueología Urbana más relevantes, ha sido la que permitió descubrir en 1992 el puerto romano de Oiasso en Irun. En su momento, fue uno de los pocos puertos romanos reconocidos arqueológicamente en Europa. El magnífico estado de conservación de sus restos, se debe a la acción protectora del barro que lo cubría. Gracias a estas condiciones, se recuperaron objetos excepcionales que fueron el embrión de las colecciones del Museo Oiasso.

## Aiako Harriko meatze erromatarrak

## Minas romanas de Aiako Harria

Inork ez zuen pentsatuko dagoeneko erromatarrek ustiatuta zeuzkatela Aiako Harriko mendigune granitikoko zilarrezko, berunezko, kobrezko eta burdinazko zainak. Ikerketa arkeologikoek erromatarren garaiko goi-mailako meatzaritza-lanak aurkitu dituzte.

Nadie hubiera pensado que los filones de plata, plomo, cobre y hierro del macizo granítico de la Peña de Aia, ya fueran explotados por los romanos. Las investigaciones arqueológicas han descubierto trabajos mineros de la época romana de primer orden.





↑ 1985. Altamira III, Irun, erromatar meazuloa / Mina romana de Altamira III, Irun

← 1985. Arditurri III, Oiartzun, erromatar meazuloa / Mina romana de Arditurri III, Oiartzun. Eva Díaz de de Ilarraza, Miren Azurmendi, María del Mar López Colom, Mertxe Urteaga, Iñaki García Camino eta / y Agustín Azkarate



## Iturritxiki

Getariako itsasertzaren aurreko itsaspeko aztarnategi bat da Iturritxikikoa. Han, Ana Benitok hondoratuta zeuden zenbait ontzi deskubritu ditu. Haien artean nabarmentzekoa, XVI. mendeko ontzi flamenko bat, urka bat, Afrikako kostaldera zihoana kobrezko lingotez eta eskulekuz kargatuta, esklaboak erosteko.

Yacimiento submarino frente a las costas de Getaria, donde Ana Benito ha reconocido varias embarcaciones hundidas, entre ellas cabe destacar una urca flamenca del siglo XVI, que se dirigía a las costas africanas cargada con lingotes y manillas de cobre, para la compra de esclavos.

## Urbiako Burdin Aroko hilobi-tumuluak

## Túmulos funerarios de la Edad de Hierro de Urbia

Hilobi-izaerako lurrezko hamar tumuluk osatzen dute multzoa. Barruan, gerlari-elite baten zaldi-uhaleriak aurkitu zituzten.

El conjunto se compone de una decena de túmulos de tierra de carácter funerario. En su interior se hallaron arreos de caballo pertenecientes a una élite de guerreros.



Indusketa arkeologikoak Akelako hilobi-tumuluan, Arkeolan 1992. Irudian, Begoña Bilbao, Arantza Fernández de Jauregui eta Marisa San Miguel

Excavaciones en el túmulo funerario de Akela, Arkeolan 1992. En la imagen, Begoña Bilbao, Arantza Fernández de Jauregui y Marisa San Miguel

# MILURTEKO BERRIA: NORMALIZAZIOA

# NUEVO MILENIO: LA NORMALIZACIÓN

5

*Erdi Aroko Gipuzkoako hiribilduetako jatorrizko barrutiak mugatzeak –Gazteak hiri-arkeologian prestatzeko ikastaroan (1987-1989) egin ziren lan horiek (1987-1989)– Honi esker Eusko Jaularitzak ingurune horiek babestu zituen, euskal kulturaondarearen eremu arkeologiko izendatuz. Neurri hori aurrerapauso handia izan zen, ondorioz udalak behartuta baitzeuden obra-lizentziak eman aurretik proiektu arkeologikoak exijitzera.*

*La delimitación de los recintos originales de las villas medievales guipuzcoanas, labor realizada en el Curso de Formación de Jóvenes en Arqueología Urbana (1987-1989), sirvió para que el Gobierno Vasco protegiera esos entornos mediante su declaración como zonas arqueológicas del patrimonio cultural vasco. Esa medida supone un gran avance, ya que los ayuntamientos quedaron obligados a exigir la presentación de proyectos arqueológicos para otorgar licencias de obras.*

## Hiribilduen gune arkeologikoak / Arkeologia-guneen izendapen-data

## Zonas arqueológicas de las villas medievales / Fecha de declaración de zona arqueológica

DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN / 29-02-1996
DEBA / 04-02-1998
AZPEITIA / 08-02-1998
EIBAR / 12-02-1998
LEINTZ GATZAGA / 06-04-1998
ELGETA / 06-04-1998
ELGOIBAR / 06-04-1998
MUTRIKU / 06-04-1998
ORDIZIA / 06-04-1998
SEGURA / 20-05-1998
ARRASATE-MONDRAGÓN / 12-04-1998
ZESTOA / 12-04-1998
ZARAUTZ / 12-04-1998
ZUMAIA / 12-04-1998
GETARIA / 12-04-1998
BERGARA / 12-04-1998
HERNANI / 12-04-1998
ORIO / 12-04-1998
ERRENTERIA / 12-04-1998
SORALUZE-PLACENCIA / 12-04-1998
TOLOSA / 12-04-1998
URRETXU / 12-04-1998
USURBIL / 12-04-1998
AZKOITIA / 03-06-1998
HONDARRIBIA / 04-04-2000


1


2


3

Gazteak Hiri-arkeologian prestatzeko Ikastaroan lortutako topografia arkeologikoak

Topografías arqueológicas obtenidas a partir del Curso de Formación de Jóvenes en Arqueología Urbana

1. Azpeitia, 2. Tolosa eta / y 3. Elgoibar

Eusko Jaurlaritzak eremu arkeologikoen inguruan egindako mugaketak; eremu arkeologiko izendapenak esan nahi du, eremu horietan obrak egiten badira, proiektu arkeologikoak egin behar direla

Delimitaciones de zonas arqueológicas realizadas por el Gobierno Vasco; la declaración como zona arqueológica supone la obligación de realizar proyectos arqueológicos en caso de realización de obras en esos espacios



1996. Alderdi Ederreko indusketa arkeologikoa, Donostia
Excavación arqueológica en Alderdi Eder, San Sebastián



1996. Boulevardeko aztarnategi arkeologikoan aurkitutako aztarnak, Donostia
Restos encontrados en la excavación arqueológica del Boulevard, San Sebastián



1997. Bretxako merkatuan aurkitutako tinak, Donostia
Grupo de tinajas localizadas en el mercado de la Bretxa, San Sebastián



1998. Boulevardeko indusketa arkeologikoan aurkitutako harresiaren aztarnak, La Bretxako merkatutik gertu, Donostia
Restos de muralla localizada en la excavación arqueológica del Boulevard, cerca del mercado de La Bretxa, San Sebastián

1998. Bretxako indusketan aurkitutako egituren aztarnak, Donostia
Restos de estructuras localizadas en la excavación de la Bretxa, San Sebastián



*Unibertsitateko emakume gazteak gehitu ziren dinamika berri horretara, aurreko belaunaldiekin bat eginez.*

*A esa nueva dinámica se incorporaron jóvenes universitarias, que se sumaron a las generaciones anteriores.*



## SONIA SAN JOSE

90eko hamarkadaren erdialdetik aurrera, Arkeologia profesionalean ziharduen Aranzadiko taldean sartu zen, Protohistoriako aztarnategietan ikertzeko proiektuak alde batera utzi gabe, hala nola Boluntxo (Oiartzun) eta Munoaundi (Azkoitia-Azpeitia). Praileaitz I (Deba) aztarnategi paleolitoko indusketan ere parte hartu zuen zuzendariorde modura. Gaur egun, teknikari arkeologoa da *Gordailuan,* Gipuzkoako Foru Aldundiko Ondare Bildumen Zentroan.

A partir de mediados de los 90 se incorporó al equipo de arqueología de Aranzadi de manera profesional, sin dejar de lado proyectos de investigación en yacimientos de Protohistoria como Boluntxo (Oiartzun) y Munoaundi (Azkoitia-Azpeitia). También participó como subdirectora en la excavación del yacimiento paleolítico de Praileaitz I (Deba). Hoy en día es técnica arqueóloga en Gordailua, Centro de Colecciones Patrimoniales de la Diputación Foral de Gipuzkoa.



## PIA ALKAIN

Gaur egun, kulturaren zabalkundean dihardu. Bere ibilbide arkeologikoa Arkeolan Fundazioan garatu zuen. Erakunde horrek 1997an antolatutako arkeologia-ikastaroan trebatu zen, eta gero, hango talde profesionaleko kide izan zen. Marian Gereñu eta Mertxe Urteagaren zuzendaritzapean egin du lan, indusketa garrantzitsuetan zuzendari eta zuzendarikide izan aurretik, Donostiako San Bartolome muinoaren indusketan esaterako.

Actualmente dedicada a la difusión cultural, su trayectoria arqueológica la desarrolló en la Fundación Arkeolan. Se formó en el curso de Arqueología organizado por esa institución en 1997, para pasar posteriormente a formar parte de su equipo profesional. Ha trabajado bajo la dirección de Marian Gereñu y Mertxe Urteaga, antes de llevar ella misma la dirección y codirección de importantes excavaciones, como la del cerro de San Bartolomé, en Donostia.



## LOREA AMONDARAIN

Arkeolanek 1997an antolatutako Arkeologia ikastaroan trebatu zen, eta erakunde horretako talde profesionalean sartu zen. 1999an, Elgoibarren, hasi zen indusketak zuzentzeko lanetan, hiribilduko Erdi Aroko hobi urpetua ikertu zutenean. Zeramika erromatarrak aztertzen espezializatu zen, eta gai horrekin eskuratu zuen doktoregoa 2016an.

Se formó en el curso de Arqueología organizado por Arkeolan en 1997, y se integró en el equipo profesional de esa institución. Su etapa como directora de excavaciones comenzó en 1999, con las investigaciones del foso inundado medieval de la villa de Elgoibar. Se especializó en el estudio de cerámica romana, tema con el que se doctoró en 2016.



## NEREA SARASOLA

1998an hasi zen Aranzadirekin lanean, eta, harrezkero, esku-hartze arkeologiko ugaritan eta ikerketa proiektuetan parte hartu du. Bere lanik aipagarrienen artean, Zarauzko Santa María la Real aztarnategiko indusketa arkeologikoak zuzendu izana.

Comenzó a colaborar con Aranzadi en 1998 y desde entonces ha participado en numerosas intervenciones arqueológicas y en proyectos de investigación. Entre sus trabajos más destacados se encuentran la dirección de las excavaciones arqueológicas en el yacimiento de Santa María la Real de Zarautz.



## MIREN GARCÍA

Arkeologia erlijioso, urbano, militar eta industrialeko proiektuak zuzendu ditu. Olaberria, Hernani eta Segurako Hirigune Historikoetan egindako indusketak azpimarratu daitezke; hala nola, burdinola, baserri eta ermitetan egindako lan arkeologikoak. dokumentazio grafikoan teknologia berrien bidez egindako lanagatik nabarmentzen da, bereziki erregistro fotogrametrikoa eta irudiaren tratamendua. Aranzadi Zientzia Elkartean egiten du lan.

Ha dirigido proyectos de Arqueología religiosa, urbana, militar e industrial, subrayando las excavaciones en los cascos históricos de Olaberria, Hernani y Segura, así como en ferrerias, caseríos y ermitas. Destaca por su trabajo en documentación gráfica mediante nuevas tecnologías, como el registro fotogramétrico y tratamiento de imagen. Realiza su labor profesional en la Sociedad de Ciencias Aranzadi.



## LARRAITZ ARRETXEA

Gaur egun, kultur kudeaketan aritzen da, eta Ereiten kultur zerbitzuen enpresaren sortzailea da. Aranzadin hasi zuen Arkeologia profesionalaren ibilbidea.

Actualmente dedicada a la gestión cultural y fundadora de la empresa de servicios culturales Ereiten, inició su andadura en la Arqueología profesional en Aranzadi.

## AMAGOIA PIA

Astigarragako inguruko prospekzio-proiektuetan lan egin zuen, eta erromatarren garaiko okupazioak deskubritu zituen.

Trabajó en proyectos de prospección en el entorno de Astigarraga, descubriendo ocupaciones de época romana.



Anoetako Basagain aztarnategi arkeologikoko lantaldea 1996an, Amagoia Piak lehen urratsak hemen eman zituen

Equipo de trabajo en el yacimiento arqueológico de Basagain, Anoeta 1996 en la que dio sus primeros pasos Amagoia Pia

## JAIONE IRIONDO

Leitzarango meatze-metalurgikoaren ondarea aztertzen aritu da, Burdina Taldea lantaldearekin. Praileaitzeko Venus paleolitikoa aurkitu zuen.

Se ha dedicado al estudio del patrimonio minero-metalúrgico en el valle de Leizarán, con el grupo Burdina Taldea. Descubrió la Venus paleolítica de Praileaitz.

## ARANTZA AGIRRE

Arkeologia profesionalean noizbehinkako lanak egin zituen; azpimarragarria, Beasainen Dolareko Erdi Aroko aztarnen indusketa.

Realizó trabajos esporádicos de Arqueología profesional; entre ellos sobresale la excavación de los restos del lagar medieval de Dolarea en Beasain.

## ITSASO EGUIAZABAL

Debako Praileaitz haitzuloa dagoen Sasiolako harrobiko leherketen zaintzaren arduraduna; Eskoriatzako Atxorrotzeko Erdi Aroko gazteluan indusketa lanak ere zuzendu ditu. Bere aurkikuntzarik ezagunenetako bat Arrasateko meategi zahar batean meatzariek lokatzetan oinutsik egindako aztarnei buruzkoa da.

Responsable de la vigilancia de las voladuras de la cantera de Sasiola donde se encuentra la cueva de Praileaitz, deba, ha dirigido también trabajos de excavación en la fortaleza medieval de Atxorrotx en Eskoriaza. Uno de sus descubrimientos más conocidos se refiere al hallazgo de las huellas en el barro de los pies descalzos de los mineros en una mina antigua de Arrasate-Mondragón.

## NAHIA SENPER

Arkeologian graduondoko prestakuntza jaso zuen, eta Eskoriatzako Atxorrotx Erdi Aroko gotorlekuan beste indusketa kanpaina batzuk ere zuzendu zituen.

Con formación de posgrado en Arqueología, dirigió también otras campañas de excavaciones en la fortaleza medieval de Atxorrotx, Eskoriatza.

## IZASKUN PUJANA / SONIA AÑIBARRO

Bizkaiko arkeologoak dira, eta ibilbide profesionala batez ere han garatu arren, Gipuzkoan ere zuzendu izan dute tarteka hiri-indusketarik.

Arqueólogas de Bizkaia que, a pesar de desarrollar fundamentalmente su trayectoria profesional en ese territorio, ocasionalmente han dirigido excavaciones urbanas en Gipuzkoa.

*Gipuzkoako emakume arkeologoen ikerketak ezinbestekoak izan dira gure lurraldeko historiaurreko aztarnategien azterketetan.*

*Las investigaciones de las mujeres arqueólogas en Gipuzkoa, han resultado imprescindibles en el estudio de los yacimientos prehistóricos de nuestro territorio.*

## Lezetxikiko haitzuloa / La cueva de Lezetxiki

Lezetxikiko ikerketa arkeologikoak 1996an hasi ziren berriro Euskal Herriko Unibertsitatearen eskutik, eta horri esker, Maria Jose Iriarte zuzendaritza taldean sartu zen, eta Palinologiatik, ikuspegi berritzailea ekarri zuen. Aztarnategi horretan Euskal Herriko giza aztarnarik zaharrenak erregistratu dira, duela ia 200.000 urtekoak, Behe Paleolitokoak.

El reinicio de las investigaciones arqueológicas en Lezetxiki en el año 1996 de la mano de la Universidad del País Vasco, permitió que María José Iriarte se incorporara al equipo de dirección, aportando su visión renovadora desde la Palinología. En este yacimiento se han registrado los restos humanos más antiguos de Euskal Herria que están datados en el Paleolítico Inferior, hace casi 200.000 años.



Maria Jose Iriarte, Arrasateko Lezetxiki aztarnategian aurkitutako animali-hezurrak erakusten

María José Iriarte mostrando restos óseos de fauna hallados en el yacimiento de Lezetxiki, Arrasate-Mondragón




Lezetxikin aurkitutako giza besa-hezurra

Húmero humano encontrado en Lezetxiki



Maria Jose Iriarte laginketa-lanak egiten Zestoako Danbolinzulo haitzuloan

María José Iriarte realizando tareas de muestreo en la cueva de Danbolinzulo, Zestoa

## Munoaundi

Sonia San Josek, Amaia Olanok eta Gorka Alijostesek osatutako taldea aurkitu zuen 1995ean Munoaundiko herrixka gotortua. Aztarnategi hau muino baten tontorrean dago, Azkoitia eta Azpeitia artean.
Sonia San Joseren zuzendaritzapean, 2000. urtean hasi ziren lan arkeologikoak, eta orain arte jarraitu dute. Harresiak, sarrera monumentala eta etxebizitza eremuak aurkitu dira.

El equipo formado por Sonia San Jose, Amaia Olano y Gorka Alijostes, descubrió en 1995 el poblado fortificado de Munoaundi, situado en la cima de una colina en el límite entre Azkoitia y Azpeitia.
Bajo la dirección de Sonia San Jose, comenzaron en el año 2000 los trabajos arqueológicos que han continuado hasta la fecha. Se han localizado la muralla, una entrada monumental y zonas de vivienda.



Azkoitia-Azpeitia, Munoaundiko Burdin Aroko herrixka gotortuak hartzen duen muinoa

La colina ocupada por el poblado fortificado de la Edad del Hierro de Munoaundi, Azkoitia-Azpeitia



Munoaundiko indusketetako lantaldea

Equipo de trabajo en las excavaciones de Munoaundi



Fibula edo arropetan erabiltzeko inperdiblea, errematearen formagatik dorretxoa deitua, Munoaundi

Fíbula o imperdible para usar en la ropa, llamada de torrecilla por la forma del remate, Munoaundi

## Santiagomendi, Astigarraga

Urumearen amaiera aldean nagusi den muino horren gailurrean, indusketa-kanpaina batzuk zuzendu zituen Maite Izquierdo arkeologoak. Lan horiei esker, bertako biztanleak erromatarren kulturan nola integratu ziren jakin ahal izan da.

En la cumbre de esta colina que domina el tramo final del Urumea, la arqueóloga Maite Izquierdo dirigió varias campañas de excavaciones. Esos trabajos han permitido conocer la integración de los pobladores indígenas en la cultura romana.



Maite Izquierdo Astigarragako Santiagomendiko indusketan lanean

Maite Izquierdo trabajando en el yacimiento de Santiagomendi, Astigarraga



Astigarragako Santiagomendiko indusketan berreskuratutako objektu arkeologikoak

Objetos arqueológicos recuperados en las excavaciones de Santiagomendi, Astigarraga



Maite Izquierdo

## Haitzulo apainduak; Paleolitoko labar-artea
## Las cuevas decoradas; arte rupestre del Paleolítico

Gure lurraldean hain garrantzitsua den Paleolitoko labar-arteari buruzko ikerketetan, Blanca Ochoa bezalako arkeologoen aurkikuntzak nabarmentzen dira. Ekainen, Erlaitzen eta Gipuzkoako labar-artea duten beste kobazulo batzuetan aritu da lanean.
Gaur egun, Debako Astigarraga haitzuloko irudiak aztertzen ditu.

En las investigaciones sobre el arte rupestre del Paleolítico, tan importante en nuestro territorio, destacan los descubrimientos de arqueólogas como Blanca Ochoa, que ha trabajado en Ekain, en Erlaitz y otras cuevas con arte rupestre de Gipuzkoa.
En la actualidad se centra en el estudio de las figuras de la cueva de Astigarraga en Deba.







↑ Zestoan kokatuta dagoen Ekain kobazuloko zaldien panela

Panel de los caballos de la cueva de Ekain, Zestoa

← Blanca Ochoa bere ikerketa lanak garatzen

Blanca Ochoa realizando sus trabajos de investigación

6

# ETORKIZUNEKO ARKEOLOGIA... KATEAK AURRERA DARRAI

# LA ARQUEOLOGÍA DEL FUTURO... LA CADENA SIGUE

*Arkeologiak, zientziaren beste arlo batzuetan bezala, teknologia berrien aurrerapen handiak erabili ditu bere ikerketetan.*

*Dronak, 3Dko fotogrametria, DNA analisiak, puntako mikroskopioak, aplikazio informatikoak eta bestelako aurrerapenei esker, lan metodoak iraultzen ari dira. Gaur egun, orain arte susmatu gabeko informazioa lortu dugu.*

*La Arqueología, al igual que otros campos de la ciencia, en sus investigaciones ha aplicado los grandes avances de las nuevas tecnologías.*

*El uso de drones, la normalización de la fotogrametría para las reconstrucciones en 3D, los estudios de ADN, los microscopios de última generación, las aplicaciones informáticas... están revolucionando los métodos de trabajo. Hoy en día contamos con información hasta ahora insospechada.*

## ANA BELÉN MARÍN

Kantabriako Unibertsitateko irakasle titularra.
Gaur egun, Aizpitarte III haitzuloan lan egiten du, Errenterian.
Neandertal giza espeziea zergatik desagertu zen ikertzen du.

Profesora titular de la Universidad de Cantabria.
En la actualidad trabaja en la cueva de Aizpitarte III, Renteria.
Su investigación se centra en conocer la causa de la desaparición de la especie humana Neandertal.



Ezkerrean / a la izquierda, Ana Belén Marín
Eskuinean / a la derecha, Olivia Rivero

## OLIVIA RIVERO

Salamancako Unibertsitateko Historiaurreko Teknologiako Laborategiko (LABTEC) irakasle titularra eta zuzendaria.
Errenteriako Aizpitarte IV haitzuloko arte paleolitikoaren azterketan parte hartu du.

Profesora titular y directora del Laboratorio de Tecnología Prehistórica (LABTEC) de la Universidad de Salamanca.
Ha participado en el estudio del arte paleolítico de la cueva de Aizpitarte IV, Renteria.



## NAROA GARCÍA IBAIBARRIAGA

Euskal Herriko Unibertsitateko Historiaurreko arloari atxikitako irakaslea eta doktorea. Paleolitoko ingurumen-azterketetan espezializatu da. Eta duela urte batzuetatik hona, Oñatiko Jaturabe IX haitzuloko indusketak zuzentzen ditu.

Profesora y doctora adscrita al área de Prehistoria de la Universidad del País Vasco. Se ha especializado en los estudios medioambientales del Paleolítico y desde hace unos años dirige las excavaciones en la cueva de Jaturabe IX, Oñati.

## MARÍA ÁNGELES MEDINA



Doktore eta ikertzaile gaztea, Bordeleko Unibertsitateko bekaduna.
Mikroindusketaren metodo berria aplikatzen du Aiako Altxerri haitzuloko labar-artezko panelen azpian kontserbatzen diren sedimentuetan.
Horri esker, hobeto ezagutuko dira zer teknika erabiltzen ziren Paleolitoko artean.

Joven doctora e investigadora becada por la Universidad de Burdeos.
Aplica el nuevo método de micro excavación en los sedimentos conservados bajo los paneles del arte rupestre de la cueva de Altxerri, Aia. Ello permitirá conocer mejor las técnicas utilizadas en el arte del Paleolítico.

---

## IZARO QUEVEDO-SEMPERENA



Valladolideko Unibertsitateko ikertzailea, Neolitoan espezializatua.
Gipuzkoan zuzendutak beste indusketa batzuen artean, Usurbilgo Andatza estazio megalitikoan egindakoak nabarmentzen dira. Aipatzekoa da halaber,
La Marmottako (Italia) Neolitoko aztarnategi bikaineko zeramikazko objektuak katalogatzen parte hartu izana.

Investigadora en la Universidad de Valladolid especializada en el Neolítico.
Entre otras excavaciones dirigidas en Gipuzkoa, destacan las que realiza en la estación megalítica de Andatza, Usurbil. Cabe destacar también su participación en la catalogación de objetos de cerámica del excepcional yacimiento neolítico de La Marmotta (Italia).

---

## OIHANE MENDIZABAL



Aranzadi zientzia Elkarteko Arkeologia saileko ikertzailea da. Pirinioetako erromatarren mundua aztertzen du, eta aurkeztu berri du bere doktorego tesia *Erromatar paisaiaren konformazioa mendebaldeko pirinioetako lurralde batean: Ibañetako pasabidea eta Urrobiko arroa (I K. a. – V K. o.)* izenburupean.

Investigadora del departamento de Arqueología de la Sociedad de Ciencias Aranzadi. Estudia el mundo romano en el Pirineo, y ha presentado recientemente su tesis doctoral titulada *La conformación del paisaje romano en un territorio del pirineo occidental: El paso de Ibañeta y la cuenca del Urrobi (I a.C. - V d.C.).*

---

## ZOHARTZE GALAN ZUMETA



Arkeolan Fundazioko arkeologoa da, eta oso aktiboa, Gipuzkoako prebentzio-arkeologiaren alorrean eta Erdi Aroko hiri-gotorlekuak ezagutzeko egin dituen ekarpenetan nabarmentzen da. Larru arkeologikoko oinetakoei buruz egin dituen ikerketak estatuko lehenak dira, eta Europa Iparraldeko eta erdialdeko lurraldeetan oso garatuta dagoen ikerketa-esparruarekin lotzen dira.

Arqueóloga de la Fundación Arkeolan, destaca en el área de la Arqueología preventiva de Gipuzkoa, así como por sus trabajos sobre las fortificaciones urbanas medievales. Sus estudios sobre el calzado de cuero arqueológico son los primeros en el Estado, y se vinculan con los desarrollados en los territorios del norte y centro de Europa.

7

# EMAKUMEAK DIZIPLINA ANITZEKO IKERKETAN

# MUJERES EN LA INVESTIGACIÓN MULTIDISCIPLINAR

*Landa-lana da ikerketa arkeologikoaren prozesu nagusia. Baina aurkikuntzak interpretatzeko, beste zientzia osagarri batzuk erabiltzen dira. Bitxia bada ere, zientzia osagarri horiek gehienbat emakumeek hasi eta garatu dituzte Gipuzkoan.*

*El proceso principal de la investigación arqueológica es el trabajo de campo, y para interpretar los hallazgos se necesitan otras ciencias auxiliares. Curiosamente en Gipuzkoa, han sido las mujeres quienes han liderado estas ciencias auxiliares.*

### HISTORIAURRETIK ARKEOLOGIARA / DE LA PREHISTORIA A LA ARQUEOLOGÍA

80. HAMARKADAN, EMAKUME UNIBERTSITARIOEN BELAUNALDI BERRIEKIN, ARKEOLOGIAK BERE IKERKETA-EREMUAK ETA METODOLOGIAK ZABALDU ZITUEN

EN LOS AÑOS 80, CON LAS NUEVAS GENERACIONES DE MUJERES UNIVERSITARIAS, LA ARQUEOLOGÍA AMPLÍA SUS CAMPOS DE INVESTIGACIÓN Y SUS METODOLOGÍAS

- HISTORIAURREA / PREHISTORIA
- HISTORIAURRE HURBILA / PREHISTORIA RECIENTE
- ARKEOLOGIA KLASIKOA / ARQUEOLOGÍA CLÁSICA
- ERDI AROKO ARKEOLOGIA / ARQUEOLOGÍA MEDIEVAL
- ERDI ARO OSTEKO ARKEOLOGIA / ARQUEOLOGÍA POSMEDIEVAL
- ARKEOLOGIA ETA MEMORIA HISTORIKOA / ARQUEOLOGÍA Y MEMORIA HISTÓRICA

**HIRI ARKEOLOGIA / ARQUEOLOGÍA URBANA**

AURREKARIAK / PRECEDENTES

- Londreseko eredua / El modelo londinense
- Gazteak hiri-arkeologian prestatzeko ikastaroa eta Gipuzkoako hiri-arkeologiako eremuak zehaztea / Curso de Jóvenes en Arqueología Urbana y delimitación de zonas arqueológicas urbanas de Gipuzkoa
- Euskal Kultur Ondarearen legea / La Ley de Patrimonio Cultural Vasco
- Diziplina anitzeko taldeen sorrera / Creación de equipos multidisciplinares

- URPEKO ARKEOLOGIA / ARQUEOLOGÍA SUBACUÁTICA
- ARKEOMETALURGIA / ARQUEOMETALURGIA
- ARKEOBOTANIKA / ARQUEOBOTÁNICA
- ARKEOZOOLOGIA / ARQUEOZOOLOGÍA
- ARTZAIN-EDO MENDI-ARKEOLOGIA / ARQUEOLOGÍA DE MONTAÑA O DEL PASTORALISMO
- INDUSTRIA-ARKEOLOGIA / ARQUEOLOGÍA INDUSTRIAL
- ARKEOLOGIA ESPERIMENTALA / ARQUEOLOGÍA EXPERIMENTAL

**ARKEOLOGIAREN ZIENTZIA OSAGARRIAK / CIENCIAS AUXILIARES DE LA ARQUEOLOGÍA**

| TIPOLOGIA LITIKOA | PALINOLOGIA | SEDIMENTOLOGIA | NUMISMATIKA | ZERAMOLOGIA | OSTEOARKEOLOGIA | GEOFISIKA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| TIPOLOGÍA LÍTICA | PALINOLOGÍA | SEDIMENTOLOGÍA | NUMISMÁTICA | CERAMOLOGÍA | OSTEOARQUEOLOGÍA | GEOFÍSICA |

## Sedimentologia / Sedimentología

Sedimentologiak metakin arkeologikoak eratzeko prozesuak aztertzen ditu. gipuzkoan, **Ana Uriz** da espezialista bakarra lanean. Pablo Aresoren eskutik hasi zuen ibilbidea laurogeiko hamarkadan.

La Sedimentologia estudia los procesos de formación de los depósitos arqueológicos. En Gipuzkoa, **Ana Uriz** es la única especialista en activo. Comenzó su andadura de la mano de Pablo Areso en la década de los ochenta.





Ezkerrean, Ana Uriz Basagaingo aztarnategian, Anoetan, laginak biltzen; eskuinean, Pablo Aresorekin Estratigrafia laborategian
A la izquierda, Ana Uriz recogiendo muestras en Basagain, Anoeta; a la derecha, con Pablo Areso en el laboratorio de Estratigrafía

## Arkeobotanika / Arqueobotánica

Lan arkeologikoetan landarehondakinak aztertzeaz arduratzen da diziplina hau. Funtsean, honela banatzen da Palinologia, Antrakologia eta Karpologia.

Es la disciplina encargada del estudio de los restos vegetales en los trabajos arqueológicos, se subdivide principalmente en Palinología, Antracología y Carpología.

### Palinologia / Palinología

Polena eta esporak aztertzen ditu.

**Cristina Peñalba,** eta 80ko hamarkadaren amaieran Neolito garaitik Iberiar penintsulako iparraldean izan diren baso-espezieak aztertu zituen. Kanadan eta Mexikon ikertzen jarraitu zuen.

**María José de Isturitzen** lana emakume arkeologoen abangoardiako talde horretan bertan kokatzen da. Ikertzaile horri zor zaizkio Neolito garaiko aztarnategi tartekatutako bateko, Zarauzko Herriko-Barrako, lehen informazio palinologikoak.

**María Fernanda Sánchez Goñi** 1980ko hamarkadaren amaieran hasi zen Lezetxiki, Labeko Koba, Urtiaga eta abarreko Paleolito garaiko aztanategien ingurumena aztertzen. Gaur egun, Parisko *Science Lettres* Unibertsitateko *École Pratique des Hautes Études* delakoan ikertu eta eskolak ematen ditu. Bertan, klimaaldaketaren dinamika eta azken milioi urteko ziklo glaziarrak ikertzen ditu, eta ospe eta prestigio handia lortu du.

**María José Iriarte** Euskal Herriko Unibertsitateko Historiaurreko saileko Palinologia Unitatea zuzentzen du, eta Ikerbasqueko ikertzaile den aldetik, hainbat aztarnategi arkeologikoren ingurumen-azterketa egiten ari da. Bere ikerketa arkeobotanikoen artean Lezetxiki eta Labeko Koba haitzuloak; eta Ametzagainako aire zabaleko asentamendu grabetiarra azpimarra ditzakegu.

Se dedica al estudio del polen y las esporas.

**Cristina Peñalba** fue pionera en el estudio a finales de los 80 de las especies forestales del norte de la Península Ibérica desde el Neolítico, continuando sus investigaciones en Canadá y México.

**María José de Isturitz,** perteneciente a este grupo de vanguardia, realizó las primeras investigaciones sobre Palinología en un yacimiento neolítico, como es el de Herriko Barra en Zarautz.

**María Fernanda Sánchez Goñi** comenzó a finales de los 80 estudiando el entorno medioambiental de los yacimientos paleolíticos de Lezetxiki, Labeko Koba, Urtiaga... Actualmente, investiga e imparte clases en la *École Pratique des Hautes Études* de la Universidad de París en la sección *Science Lettres,* donde investiga la dinámica del cambio climático y los ciclos glaciales en el último millón de años, habiendo alcanzado gran renombre y prestigio.

**María José Iriarte** dirige la Unidad de Palinología del área de Prehistoria de la Universidad del País Vasco. Desde su posición de investigadora de Ikerbasque, contribuye al estudio medioambiental de numerosos yacimientos arqueológicos. Entre sus estudios arqueobotánicos podemos destacar las cuevas de Lezetxiki y Labeko Koba, y el asentamiento gravetiense al aire libre de Ametzagaina.



María Fernanda Sánchez Goñi



María José Iriarte

### Antrakologia eta Karpologia / Antracología y Carpología

Antrakologiaren xedea da ikatzak eta egurrak aztertzea. Karpologiak fruituak eta haziak aztertzen ditu.

**Lydia Zapata**ren ekimenez hasi ziren diziplina horiek aztertzen gure lurraldean.
Zapatak Londresko University College-n eta Cambridgeko Unibertsitatean ikasi zuen, eta 1999an, Euskal Herriko Unibertsitatean doktoratu zen.
Irungo portu erromatarreko haziak aztertu zituen.
Euskal Herriko Unibertsitateko Arkeobotanikako laborategia ere sortu zuen. Bertatik, ikerketa handiak sustatu zituen, eta Europako espezialisten miresmena lortu zuen.
Zoritxarrez, 2015. urtean hil zen, ia 49 urte zituela eta etorkizun handiko karrera aurretik.

**Amaia Arranz Otaegi**k haren lekukoa jaso du, 2023an Kophenageko Unibertsitatean bere formazioa burutu ondoren Euskal Herriko Unibertsitatera itzuli da honek Shubayquan (Jordania) ehiztari-biltzaileen aztarnategi batean, planetako ogi-hondakin zaharrenak identifikatu ditu, duela 14.000 urtekoak.

La Antracología tiene por objeto el estudio de carbones y maderas; la Carpología estudia frutos y semillas.

**Lydia Zapata** fue la precursora de los estudios de estas disciplinas en nuestro territorio.
Formada en la University College de Londres y en la Universidad de Cambridge, se doctoró en la Universidad del País Vasco en 1999. Estudió las semillas del puerto romano de Irun y fundó el laboratorio de Arqueobotánica de la Universidad del País Vasco, desde el que promovió grandes investigaciones que le valieron la admiración de especialistas europeos.
Lamentablemente falleció en 2015, cuando apenas contaba con 49 años y una prometedora carrera.

**Amaia Arranz Otaegi** recogió el testigo de Lydia Zapata. Esta investigadora completó su formación en 2023 en la Universidad de Copenhague y regresó a la Universidad del País Vasco.
Ha identificado en el yacimiento de cazadores recolectores de Shubayqua (Jordania), los restos de pan más antiguos del planeta, datados hace 14.000 años.


Lydia Zapata


Amaia Arranz Otaegi

## Zeramologia / Ceramología

Zeramika, Neolitotik sortu zenetik, ikerketetako funtsezko pieza bihurtu da, bere konposizioagatik eta aztarnategi arkeologikoetan duen ugaritasunagatik.

Zeramika arkeologikoaren azterketa bi eremutan banatzen da: batetik, eskuz modelatutako zeramika-multzoak daude, eta, bestetik, tornuan seriean fabrikatutakoak.

Hasieran, zeramikazko pieza horiek eskuz egiten ziren, eta oinarrizko labeetan egosten ziren. II. Burdin Aroaren amaieran agertu ziren Gipuzkoan oin bidezko tornuarekin egindako lehen zeramikak; askoz finagoak ziren eta akabera hobea zuten. Azken hauek Erromatar Inperioan zehar orokortu ziren.

La cerámica desde su descubrimiento en el Neolítico, por su composición y abundancia en los yacimientos arqueológicos, se ha convertido en una pieza clave de las investigaciones.

El estudio de la cerámica arqueológica se divide en dos ámbitos, el de los grupos cerámicos modelados a mano y los fabricados a torno en serie.

Las primeras cerámicas se hacían a mano, cociéndolas en hornos rudimentarios. Es a finales de la II Edad del Hierro cuando aparecen en Gipuzkoa las primeras cerámicas elaboradas con el torno de pie, que son mucho más finas y mejor acabadas. Estas últimas se generalizaron durante el Imperio romano.





Erromatar zeramikaren sailkapena erabat estandarizatua dago.
Irudian, Arkeolaneko biltegiratze-fasea

La clasificación de cerámica romana sigue un proceso normalizado.
En la imagen, la fase de almacenamiento en Arkeolan

**Miriam Cubas.** Neolitotik Brontze Arora bitarteko zeramika-teknologian espezializatu da. Nabarmentzen da Zegamako San Adrian aztarnategian egindako zeramologia-ikerketengatik, eta ontzietan txertatuta kontserbatu diren erresiduo organikoen ikerketengatik. Horiek zertarako erabili ziren zehazten laguntzen dute.

**Miriam Cubas** se ha especializado en tecnología cerámica del período comprendido entre el Neolítico y la Edad del Bronce. Destaca por sus estudios de ceramología en el yacimiento de San Adrián, Zegama, y sus investigaciones de los residuos orgánicos que se han conservado incrustados en las vasijas y que determinan para qué fueron utilizadas.



Eskuz egindako dekorazio kordatua duen ontzi handia, San Adriango tuneleko, Zegama, indusketetan berreskuratua. Brontze Aroa

Gran vasija con decoración cordada elaborada a mano, recuperada en las excavaciones del túnel de San Adrián, Zegama. Edad del Bronce



Miriam Cubas Morera

**María del Mar López Colom** eta **Mertxe Urteaga,** Arkeolaneko lan-taldeko ikertzaile nagusiak izan ziren 90eko hamarkadan, eta nazioarteko proiektu bati esker Londresko Museoko DUA metodoa (Department of Urban Archaeology) aplikatzen hasi ziren; 70.eko hamarkadan diseinatu zen metodo horrek, zeramika erromatarra eta Erdi Arokoa sailkatzen laguntzen zuen eta pastaren analisia eransten zitzaion.

**María del Mar López Colom** y **Mertxe Urteaga,** gracias a un proyecto internacional, fueron las investigadoras principales en el equipo de Arkeolan en los años 90 que aplicaron el método DUA (Department of Urban Archaeology) del Museo de Londres, diseñado en la década de los 70 para clasificar la cerámica romana y medieval, añadiendo el análisis de la pasta.

**Lorea Amondarain,** Arkeolaneko ikerlariak DUA metodoa oinarri hartuta, antzinako Oiassoko (Irun) 125.000 zatiz osatutako zeramikabilduma sailkatu du. Datu horiek dira Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean 2016.an defendatu zuen doktore-tesiaren oinarria. Ikerketa horiekin jarraituz, Gipuzkoan orain arte agertu diren zeramika erromatarraren fabrikatzaileen zigiluak ere erroldatu ditu.

**Lorea Amondarain,** tomando como base ese método DUA, ha clasificado la colección cerámica compuesta por 125.000 fragmentos de la antigua Oiasso, Irun. Esos datos son la base de su tesis doctoral, defendida en la Universidad Complutense de Madrid en el año 2016. Siguiendo con esas investigaciones, también ha censado los diferentes sellos de fabricantes de cerámica romana aparecidos hasta la fecha en Gipuzkoa.

**Maite Izquierdo** arkeologoa Gipuzkoako erromatarren garaiko zeramika aztertzen espezializatu da, bereziki zeramika arruntetan. Pampinot kaleko (Hondarribia) eta Irungo Junkaleko Ama Birjina elizako aztarnategiko erromatarren garaiko zeramika aztertu du.

**Maite Izquierdo** se ha especializado en el estudio de la cerámica de época romana en Gipuzkoa, centrándose en las cerámicas comunes. Ha estudiado la cerámica de época romana del yacimiento de la calle Pampinot, Hondarribia y de Santa Mª del Juncal, Irun.



Mila Esteban eta Maite Izquierdo Oiasso museoaren inaugurazioan, 2006

Mila Esteban y Maite Izquierdo en la presentación del Museo Oiasso, 2006



Eskuz egindako dekorazio kordatua duen ontzi handia, Santiagomendi, Astigarraga indusketetan berreskuratua. Burdin Aroa

